



*Plazaola Partzuergo Turistikoa 2010-09-07*

## **Aresoko III Mendi Martxa inoiz baino jendetsuagoa**

*Pasa den Irailak 5ean Aresoko III. itzulia ospatu zen 500 partehartzaile baino gehiagorekin, iazko kopurua bikoiztuz*

Azken bi hilabeteko oporraldiaren ondoren, Mendiko Martxen Nafarroako Zirkuitoak bere jarduerarekin hasi zen berriz ere pasa den igandean, irailak 5ean, Areson. Zonaldeko eta inguruetako 500 mendizaletik gora gerturatu ziren bertara, edizio hau osatu duten 8 hitzorduetatik azkenekoa disfrutatzeraz.



Zonaldeko mendiak ibiltzen zituen txangoa, puntual hasi zen, goizeko 8etan Aresoko plazatik. Zailtasun ertaina zuen martxa ez konpetitibo honek 26 kilometroko luzeera eta 1200 metroko desnibel pilatuko ibilbidea zuen. Aurreikusitako ibilbide zirkularra Aresoko plazatik hasi zen eta mendizaleak Ulizarko kaskora igo ondoren, Urkita mendi aldera abiatu ziren. Bertatik Aralarko tontor ederrak eta, eguraldia lagun, Txindoki bera ikusteko aukera izan zuten. Urkitako bueltatik Pagozelaira iritsita, Lau Mugarrietatik jo zuten mendizaleak, ibilbidea, berriz ere, Aresoko plazan amaitzeko.

Nahiz eta martxa hasi baino ordubete lehenago 250 pertsona zeunden inskribatuta, eguzkiak eta beroak beste 250 pertsona gonbidatu zituzten txangoan parte hartzera. Horren eraginez, aurreikusitako ura eta jatekoa piska bat motz geratu ziren.



4-5 orduko media batekin mendizale guztiek ibilbidea amaitzean, paella eta sagardoa hartzeko aukera ere egon zen, han zeudenen artean opariak banatzen ziren bitartean.

Aresoko III. Mendi martxaren antolatzaileak oso pozik daude bai martxaren emaitzarekin, bai izandako partehartzearekin eta hurrengo urteetan kirol-egun batez eta bista ikusgarriaz disfrutatu nahi dutenen kopurua igotzen jarraitzea espero dute.

